



MUSEOEN NAZIOARTEKO EGUNA 2020


Esku inklusiboak Oiassoko portuan

**BERDINTASUNERAKO MUSEOA:
ANIZTASUNA ETA INKLUSIOA**



Esku inklusiboak Oiassoko portuan

Oiasso Museoa, Museoen Nazioarteko Eguna ospatzeko, "Esku inklusiboak Oiassoko portuan" sormenezko eskulanen tailerra proposatzen du. Hau da, **eskuen eta arrainen irudiak egitea**, elkartasunaren, elkartrukearen eta Oiassoko portuaren ikur gisa. Tailerra **6 urtetik aurrerako haurrak** dituzten familiei zuzenduta dago etxetik egin ahal izateko.



Anima zaitezte parte hartzera! Guztion artean egingo ditugu esku eta arrain solidarioak!

DATU PRAKTIKOAK

Jarduera: Esku eta arrainen irudiak egitea estanpazioa teknikaren bidez.

Jardueraren gutxi gorabeherako denbora: Ordu eta erdi.

Saria: Parte hartzeagatik Oiasso artista inklusiboaren diploma eskuratuko duzu.

Emaitza: Gure helbide elektronikora bidaltzen dizkiguzuen eskuen eta arrainen irudiekin instalazio kolektibo birtuala egingo dugu: info-oiassomuseo@irun.org

Gure webgunean egongo da ikusgai emaitza

Aurkezteko azken eguna: Maiatzaren 31a.

GOAZEN LANERA!


Hasteko, gure tailerra egiteko laguntza moduan, erantsitako bideoa ikusiko dugu.

Bideoa Aspaceko gure lagunekin egin dugu Oiassoko museoan.

Ondoren, honako pausoak emango ditugu:

1. MATERIALAK AUKERATUKO DITUGU
2. ESTANPATUAK EGIN ETA AZTARNA UTZIKO DUGU
3. AZTARNAK LEHORTZEN UTZI KARTULINAN
4. ARRAINEN ETA ESKUEN SILUETAK EGINGO DITUGU
5. ONLINE INSTALAZIO KOLEKTIBOA

1.- MATERIALAK AUKERATUKO DITUGU



-  Kartulina bat
-  Soka zati bat
-  Koloretako pintura plastikoak
-  Plastikozko platerak:
-  Esponja bat
-  Burbuilazko papera
-  Sukaldeko paperaren tutuak
-  Guraizeak
-  Alanbre sarearen zati bat
-  Zirkulu formako txantiloia
-  Pintzela



2.- ESTANPATUAK EGIN ETA AZTARNA UTZIKO DUGU

Kartulinetan aztarnak estanpatzeko modalitate hauek egingo ditugu.

Koloretako pinturak prestatuko ditugu plastikoko plateretan.



Teknika sortzaileak



1



- 1.- Soka zati bat moztu
- 2.- Kartoizko tuboaren bueltan jarri soka.
- 3.- Esponja kolore batekin busti eta tuboa eta soka pintatu.

- 4.- Tuboa kartulinararen gainean jarri, kartulinarak aztarna uzteko.
- 5.- Koloreak nahastu eta testura-probak egin, kartulinararen gainetik behin eta berriro pasata.



2



- 1.- Burbuilazko papera tuboaren neurrian moztu. .
- 2.- Burbuilazko paperarekin tuboa bildu.
- 3.- Esponja kolorearekin busti eta kartulina margotu, bertatik behin eta berriro pasata.

- 4.- Tuboa kartulinaran jarri eta mugitu aztarnak uzteko.
- 5.- Koloreak nahastu eta testura-probak egin


3



- 1.- Plastilina zatia hartu eta berdindu.
- 2.- Zuloak markatu pintzel edo boligrafo batekin.

- 3.- Esponja pinturarekin busti plastilinararen marrazkian.
- 4.- Marrazkiak kartulina estanpatu.

4



- 1.- Alanbre-sarearen zati bat hartu.
- 2.- Esponja pinturarekin busti.
- 3.- Estanpazioa egin.

5




- 1.- Eskuetako behatzak margotu eta aztarnak utzi.



Esponja, pintura, plastinila eta sokarekin jolastu eta nahi adina artelan sortu!

3.- AZTARNAK LEHORTZEN UTZI KARTULINAN

Aztarnak dituzten kartulinarak pintzekin zintzilikatu, lehortu daitezzen.






Mundu oso bat deskubritzeko!

4.- ARRAINEN ETA ESKUEN SILUETAK EGINGO DITUGU

Kartulinetako estanpatuak lehortzen direnean, honako pausoak emango ditugu:

1. Esku eta arrainen irudien txantiloak egin kartoian eta marraztu egingo ditugu.
2. Moztu egingo ditugu eta prest izango ditugu Oiassoko esku eta arrain solidarioak.



**Oiassoko eskua:**

Esku *arkeologikoa* da

Laguntzeko prest dagoen eskua

Txalo egiteko prest dagoen eskua

5.- ONLINE INSTALAZIO KOLEKTIBOA

info-oiassomuseo@irun.org helbidera bidaltzen dizkiguzuen esku eta arrainen irudiekin instalazio kolektibo birtula prestatuko dugu gure webgunean.



Parte hartu!
Artista inklusiboaren diploma irabaziko duzu!
Guztionean artean lortuko dugu!